

**HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ABANTO-ZIERBENAKO
INDUSTRIALDEA SA-REN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017**

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den ekainaren 27an Abanto-Zierbenako Industrialdea Saren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldiari dagokiona.

2017ko urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du.

Halaber, Txostenak ondorioztatu du Sozietateak 2017ko ekitaldian ekonomia eta finantzazko jarduera arautzen duen lege-araudia bete duela.